

Kerobia, poliorkkêtês.



Poliorkêtês. Etxe setiatua.

Etxeko gauza txikiek hartzen dute garrantzia, fregatu gabeko platerak, irratia bere goizeko albisteekin, egurrezko egituraren zaratak etxea berotzen hasten denean, arropa garbitu, kafe bat egin eta telefonoz hitz egin. Gelak, hamaika osotara, hutsik izan ohi dira, asteburu edo egun berezi batetan familiako kideak etortzen diren arte. Orduan etxeak beste kolore bat hartzen du, beroagoa. Urdinetik gorrira pasatzen da. Normalean, egia da, eguraldi polita dagoenean izaten ditu bisitak. Horrek laguntzen du transformazioan.

Egia da, ere bai, noizean behin gauza berriren bat ekartzen dutela etxera. Beti geratzen da kamiseta bat goiko logelan, zapatila batzuk atarian, ardo botilak edo eta tramankuluren bat. Azkenekoan, teleskopio bat ekarri zuen anaiak. Ona dirudi. Oraindik ez dugu erabili lainotuta egon delako hilabete luzez. Ziur Orion ikusiko

dugula behingoz. Ziurrenik uda partean.

Etxea polita da, bere erara. Eta zaharra, bere garaian obrak egin bagenituen ere. Horrek ez zuen saihestu ipar-ekialdeko horman pitzadurak sortzea. Sabaiko oholak ere ez daude oso fin. Eta horrek etxean korronteak sortzen ditu. Txamarra asko daude esekitokian, denak goxoak, txubaskero baten bat ere bai, paseo bat eman nahi duenarentzat. Horregatik, ez dio garrantzi handiegirik ematen korronteei. Beti dago hiruzpalau arropa kaparekin gainean (bi udan partean). Batek pentsatu dezake, misteriozko nobela batetan bezala, korronteeek “ziiiii ziiiiis” soinua egiten dutela, baina ez da horrela. Ez dute zaratarik egiten. Sumatzen dira soilik. Etxe honetan dena sumatu egiten da, ez da ezer era argian agertzen.

Gauean dezente ondo egiten dut lo, dena itzaltzen da gaueko zortzietan gutxi gora behera. Sukaldeko argiak, telebista, lanpara, iturria, bainuko argia ta ohean sartzen naiz. Plazer handia da egun guztian ezer ez egin ondoren ohean sartzea. Baina maiz gaueko ordu bitan esnatu egiten naiz.

Eta orduan orduak gaixotasun bat bezala dira. Luzeak, deserosoak. Munstroak azaltzen dira (inongo justifikaziorik gabe) eta gorputzak ez daki jeiki behar duen ala ez. Eta buruak borroka egiten du koman sartzeko. Eta askotan fantasma bat dago. Niri begira. Edo ni hari begira. Zer axola zaio ba nire presentziak? Zu zara, uste dut. Berdin da. Ikara ematen zidan hasieran, gero ohitu egin nintzen. Zer axola zaio ba nire presentziak? Zu zure bidetik eta ni niretik. Besterik gabe garantia bat behar dut nire intimidadea errespetatuko duzula jakiteko. Horrela bada ez dut erritualik egingo zure kontra, ez dut zutaz hitz egingo.

Baina oso bakarrik nago normalean, nire eztarritik ez da soinurik ateratzen ordu luzeetan. Horregatik harritu zait “grrrr, grrrr, ep, utzi lotan!” esan dudanean tapakiak *crep* bat bezala nire gorputzean kolokatu ditudanean. Geroztik, batzuetan hitz egiten dut. Gauetan edo egunean zehar. Orain ia ez dago protokolorik.

Komentatu dizut, nola Gazan pertsonak erailtzen ari diren, arratoiak bailiran. Eta ez nagoela batere

konforme. Behin, kanpoko gauzetan pentsatzen hasten naizenean, gogoratu naiz zenbat jende hondoratzen den Mediterraneoan, etxea utzita, ihesean. Nola da posible? Kanta batetan esaten zuen Kerobiak, alanbradan eskegita hil zena etxera bueltatu zela. Eta zein zen bere izena? Nola jakingo du bere amak zer izan den bere semeaz? Zer izen du bere amak? Eta nolakoa zen bere etxea? Honek mina ematen du. Oso triste jartzen nau. Amorrua eta haserrea. Terrorista bilakatuko nintzake pertsona gaiztoek inposatzen duten beldurra haiei pasarazteko. Baina azkenean inoiz ez dut nire izena talde subertsibo batetan inskribatzen. Eta hori erraza dela internet izanda... *El Cobra* gaitzizena jarriko nioke nire buruari. Baina koldar bat naiz eta gainera pena ematen didate “putaseme” horiek. Gorrotoa oso nekeza da.

Dena den, pentsatzen dut ere bai, zenbat denbora galdu nuen beste pertsona batzuen espektatibak betetzen saiatzen. Eta gogoan dut, nola musikaria nintzenean dena nahasten zitzaidan nire barruan. Alde batetik, poesiaren beharra, bestetik,

errekonozimenduaren beharra eta bukatzeko, pantaila beltza. Ez nuen zer kontaktu eta beldur ematen zidan arrakasta ez izateak. Beldurra ematen zidan munduak ni ez maitatzeak eta miresteak. Gogoratzen dut, bai. Zenbat denbora galdu nuen. Horregatik nago hemen. Etxe honetan. Ohitura hartu nuen hona etortzeko musikaren espektakuluak buruhauste gehiago ematen zidanean poza baino. Amaiera gabeko putzu bat zen (gaizki idatzitako *while* komando bat Python-en). Horregatik dakit nola pizten den sua, etxeke kuadro elektrikoaren zehaztasunak eta ur beroa ondo jartzeko trukuak. Garbiketaren zereginetan ere asko hobetu dut. Lehen, zu zeundenean, gutxi gora behera dena zegoen garbi, logelak bero, jana hozkailuan. Onartu beharra daukat zu ez zinenetik, nolabaiteko askatasun baten apologia eginez, guzti hau zaintzeari utzi niola. Eta ez da ideia ona.

Orain etxeak, handia eta zaharra bada ere, itxura duina du. Baina, badakizu. Bazter bat garbitzen duzunerako, beste bazterrak errautsa dauka edo... arratoiaren abentura baten arrastoak.

Baina tira, intentzioa da garrantzitsuena - esan zuen boxealariak-.

Habitanteak. Etxea hutsik dagoela esan dut. Erdizkako egia da. Etxea *habitatez* josita dago. Asuntoa da inork ez duela bestea molestatu nahi, denek egiten dugu bestearengandik ihes. Arratoiak, armiarmak, euliak (hau udan drama bat da, estrategiaz aldatu eta eraso egiten dutelako) eta fantasmak. Behintzat bat. Zurea.

Gogoratzen naiz nire aita eta amataz. Besterik gabe gogoratzen naiz. Bizi dira. *In fact* (izan ere) - ingelesa ikasten ari naiz- nire aita etortzen da maiz kanpoko zereginak egitera. Gauza asko daude egiteko kanpoan. Ni afera horretan ez naiz sartuko, hori bere istorioa da. Baina egia da kuriositate handia ematen didala kanpoan gertatzen denak. Euria egiten duenean nola lurra busti eta buztintzen duen. Nola ura gutxinaka behera doan lur azpian. Nola gauzak jaiotzen diren, landareak, barazkiak (jangarriak edo ez) eta animaliatxo asko hortik barna ibili ohi diren euria egin ala eguzkia egin. Zentratu gaitzen lur bustian.

Lur planetaren azalaren zentimetro gutxi batzuetan pasatzen dira gauza interesgarrienak. Sustraiak dauden tokian, zendutakoak sartzen ditugun tokian, hodiak ezkutatzen ditugun tokian.

Oso zaila egiten zait imajinatzen zer aberats ginen humus-limo kapa bat genuenean gure jabetzan. Polita da pentsatzen uraren bidaian ere bai. Nola lurrazpitik mugitzen den, batzuetan puntu konkretu batetan azalera ateratzeko, garbi, propietate kimiko guztiak hobetuta eta edangarri. Azken hau idealizazio bat da, askotan lurrak urari hiltzen gaituzten gauzak ematen dizkio eta. Pentsatu dut, nola esaten zen "ura" lehen, oso aspaldi, ezer aldatzen ez zen garai haietan, Kalkolitikoa baino lehenago. Nire teoria gorpuzten joan naiz. Bai, "its" edo "hits" esango zen. Ez ordea "ura". Hori kasik, ekialdetik ekarritako mailegu bat dela. Bestela zergatik itsaso, izurde, iturri, izotz? Hitz hauek orain dela hamar mila urte erabiltzen ote ziren?

Lurra, ura, zura edo harri. Askotan sentitu izan dut badaudela gauza batzuk beti permanenteak direnak.

Urtu arte. Minak edo beldurrak bezala. Urtu behar duten momentuan berriro hartzen dutenak bere bidea, bere mugimendua. Ama hilko denean adibidez. Damuak ez hobe izateagatik beretzako. Edo zure presentzia (presentzia ez al da maitasunaren definizio bat soilik?) behin lutoa amaitu denean, noski. Baita gauza ederrak ere. Irrikatzen nago memorian izoztuta dagoen maitasun eta lasaitasun guzti hori noiz urtuko den. Imajinatzen dut denborak ekarriko duela urtutze denboraldia. Espero dut udaberri polit horiek bezala gutxinaka izatea. Hobe datorkit horrela. Gutxinaka. Eta bitartean, hemen egotea gustatzen zait.

Poliorkêtês. Casa sitiada.

Cobran importancia las pequeñas cosas de la casa, los platos sin fregar, la radio con sus noticias matutinas, los ruidos de la estructura de madera cuando empieza a calentar la casa, lavar la ropa, hacer un café y hablar por teléfono. Las habitaciones, once en total, suelen estar vacías hasta que un fin de semana o un día especial llegan los miembros de la familia. Entonces la casa adquiere otro color, más cálido. Pasa del azul al rojo. Normalmente, es cierto, tiene visitas cuando hace buen tiempo. Eso ayuda a la transformación.

Es verdad que, de cuándo en cuándo, traen a casa alguna cosa nueva. Siempre queda una camiseta en el dormitorio de arriba, unas zapatillas en la entrada, botellas de vino o algún artilugio. La última vez, mi hermano trajo un telescopio. Parece bueno, pero todavía no lo hemos utilizado porque ha estado nublado durante meses.

Seguro que veremos Orión de una vez por todas. Probablemente en verano.

La casa es bonita, a su manera. Y bastante antigua, aunque hicimos obras en su día. Esto no evitó que se hayan formado grietas en la pared noreste. Las tablas del techo tampoco están muy *pallá*. Y eso genera corrientes en casa. Hay muchas chamarras en el colgador, todas confortables, hasta algún chubasquero, para quien quiera dar un paseo. Por eso no le da demasiada importancia a las corrientes; siempre se viste con tres o cuatro capas de ropa (dos en verano). Se podría pensar que, como en una novela de misterio, las corrientes suenan "ziiiii ziiiiis", pero no es así. No hacen ruido. Sólo se perciben. En esta casa todo se percibe, nada aparece de forma nítida.

Por la noche duermo bastante bien, todo se apaga a las ocho de la noche más o menos. Las luces de la cocina, el televisor, la lámpara, el grifo, la luz del baño y me meto en la cama. Es un placer meterse en la cama después de no haber hecho nada en todo el día. Pero a las dos de la mañana con frecuencia me despierto. Y entonces

las horas son como una enfermedad. Son largas, incómodas. Aparecen los monstruos (sin justificación alguna) y el cuerpo no sabe si tiene que levantarse. Y la cabeza lucha por entrar en coma. Y muchas veces hay un fantasma. Mirándome. O yo mirándole. ¿Qué le importará mi presencia? eres tú, creo. No importa. Al principio me daba miedo, luego me acostumbré. ¿Qué importa mi presencia? Tú por tu camino y yo por el mío. Simplemente necesito una garantía de que respetarás mi intimidad. Si es así no haré rituales contra ti, no hablaré de ti.

Pero, por lo general, estoy muy solo. De mi garganta no sale ningún sonido durante horas. Y me he sorprendido cuando en voz alta he murmurado “grrrr, grrr, ¡ep! ¡Déjame dormir!” mientras colocaba las mantas en torno a mi cuerpo como si fuera un *crep*. A partir de entonces a veces hablo. Durante las noches o durante el día. Ya no hay ningún protocolo.

Ya te he comentado cómo en Gaza están asesinando personas como a ratones. Y que no estoy nada conforme. Ya puestos, cuando me

pongo a pensar en cosas de fuera, me he acordado de cuánta gente se hunde en el mediterráneo, abandonando la casa, huyendo. ¿Cómo es posible? En una canción Kerobia decía que el que murió colgado en la alambrada volvió a su casa. ¿Y cuál era su nombre?, ¿cómo sabrá su madre lo que ha sido de su hijo?, ¿cómo se llama su madre?, ¿cómo era su casa? Esto duele. Me pone muy triste. Rabia e ira. Me convertiría en terrorista para hacer pasar a las malas personas el miedo que imponen a las demás. Pero al final nunca inscribo mi nombre en un grupo subversivo. Y eso que es fácil teniendo internet... Me llamaría *El Cobra*. Pero soy un cobarde y además me dan pena esos “hijosdeputa”. Odiar es muy cansado.

De todas formas, también pienso cuánto tiempo perdí intentando cumplir las expectativas de otras personas. Y recuerdo que cuando era músico se mezclaba todo: por un lado la necesidad de la poesía, por otro la necesidad de reconocimiento y, para terminar, una pantalla en negro. No tenía nada que contar y me daba miedo que no fuera un éxito. Me daba

miedo que el mundo no me amase y me admirara. Lo recuerdo, sí. Cuánto tiempo perdí. Por eso estoy aquí. En esta casa. Tomé la costumbre de venir aquí cuando el espectáculo de la música me agobiaba más que alegraba. Era un pozo sin fondo (un comando *while* mal escrito en Python). Por eso sé cómo se enciende el fuego, las minucias del cuadro eléctrico de la casa y los trucos para poner bien el agua caliente. También he mejorado mucho en las tareas de la limpieza. Antes, cuando estabas tú, todo estaba más o menos limpio, las habitaciones calientes y comida en el frigorífico. Debo admitir que desde que no estás tú, haciendo cierta apología de la libertad, dejé todo esto sin atender. Y no es una buena idea.

Ahora la casa, por grande y vieja que sea, tiene un aspecto digno. Pero, ya sabes. Para cuando limpias un rincón, el otro rincón tiene polvo, o restos de una aventura de ratones. Pero bueno, la intención es lo más importante -dijo el boxeador-.

Habitantes. He dicho que la casa está vacía. Es una verdad a medias. La casa está llena de habitantes. El asunto es

que nadie quiere molestar al otro, todos huimos del otro. Ratones, arañas, moscas (esto es un drama en verano, porque cambian de estrategia y atacan) y fantasmas. Al menos uno. El tuyo.

Me acuerdo de mi padre y de mi madre. Simplemente me acuerdo. Viven. *In fact* (de hecho) -estoy estudiando inglés- mi padre viene a menudo a hacer tareas de fuera de casa. Hay muchas cosas que hacer fuera. Yo en ese asunto no voy a entrar, esa es su historia. Pero es verdad que me da mucha curiosidad lo que pasa fuera. Cómo la lluvia moja el suelo. Cómo el agua va bajando poco a poco por el subsuelo. Cómo nacen las cosas, las plantas, las verduras (comestibles o no) y muchos animalitos que suelen andar por ahí llueva o *solee*. Centrémonos en la tierra mojada.

En pocos centímetros de la superficie del planeta Tierra pasan las cosas más interesantes. Allí donde están raíces, donde metemos a los muertos y escondemos los tubos. Me resulta muy difícil imaginar lo ricos que éramos

cuando teníamos una capa de humus-limo en nuestra propiedad.

También es bonito pensar en el viaje del agua. Cómo se mueve bajo tierra, a veces para salir a la superficie en un punto concreto, limpio, potable y con todas sus propiedades químicas mejoradas. Esto último es una idealización, porque a veces la tierra aporta al agua cosas que nos matan. He pensado sobre cómo se decía "agua" antes, hace mucho tiempo. En aquellos tiempos en que nada cambiaba, antes del Calcolítico. He ido dando cuerpo a mi teoría. Sí, se diría "its", o "hits". No "ura" (agua). Diría que eso es casi un préstamo traído de oriente. Si no, ¿por qué existen las palabras *itsaso*, *izurde*, *iturri*, *izotz* (mar, delfín, fuente, hielo)? ¿Se usaban hace diez mil años?

Tierra, agua, madera o roca. Muchas veces he sentido que hay cosas que siempre son permanentes. Hasta que se funden. Como el dolor o el miedo. Que en el momento en que han de fundirse vuelven a tomar su camino, su movimiento. Cuando mi madre vaya a morir, por ejemplo. Remordimientos por no haber sido

mejor para ella. O tu presencia (¿no es la mera presencia el significado del amor?) una vez que el luto ha terminado, claro. También las cosas hermosas. Estoy deseando que todo ese amor y tranquilidad congelado en la memoria se derrita. Imagino que el tiempo traerá la temporada de deshielo. Espero que sea poco a poco como esas bonitas primaveras. Me viene mejor así. Poco a poco. Y mientras tanto, me gusta estar aquí.

Hauts azpian hekatonbe bat

A

Hauts azpian hekatonbe bat

Ez du minik emango

Urtu arte

Zer du egiatik...?

Poliorkêtês

B

Nekagarriegia da gorrotatzea (eta
heroiaren kontrako saio holistiko bat
doan)

Dantzan zaude olatuen artean

Minutu bat samurtasun hari bati
heltzeko

Dantzan zaude eztabaiden artean

Hemen egotea gustatzen zait

Zaindu ezazu etxea lo nagoen
bitartean

Behin pasa dena berriro ere gertatu
daiteke;
izar bat lehertu da, zeruan lehertu da,
udako ekaitzak ezkutatu du.

Ederra da ikustea
hemendik nago begira,
denak bat egin du.
Leherketa da.

Arroka urtuen euria.
Egia esan,
gauzak ziren bezala
ondo zeuden.

Begira ilargia zerutik nola erortzen
den.

Hauts hauetan hekatonbea.

Ederra da ikustea
hemendik nago begira.
Leherketa da
arroka urtuen hirian.

Baina egun hartan bazen
sekretu ezkuturik.
Nire barruan dago.

Inoiz baino gorago
hemendik ari natzaizu begira.
Maitasuna da.

Ez du minik emango

Oinez noan bitartean
aspaldiko partez haize
epel hau azalean.

Ez ohiko olatu bat dator guregana,
itsasoak eman duen handiena.

Bart zurekin egin nuen amets eta
ederra izan zen.

Ez ohiko olatu bat dator guregana,
itsasoak eman duen handiena.

Besarkatu zaitut.

Laister pasako da,
azken opari bat bezala da.

Ez ohiko olatu hau iritsi da guregana,
itsasoak eman duen handiena da.

Keinu eder bat
eskaini nahi dizut
azken opari bat bezala da.
Ez du minik emango.

Urtu arte

Neguak izozten ditu minak eta
maiatza arte itxoiten dute.

Hobe ikusten zaizula esan didate.
Urak forma asko ditu baina.

Aurten ez bada, bihar agian.

Negu hotzak eskaintzen dituen
hotzikarak
eta esku beroa zure bularrean.

Aurten ez bada, bihar agian
zurekin bada, laztana.

Urtu arte.

Eta ura “hits” esaten zen;
itsasoa, izurde, iturri, eta mina.
Izoztutako mina, urtu arte.
Eta ura “hits” esaten zen.

Iritsi al da
egun berri bat?
Zurekin al da?

Aurten ez bada, bihar agian.

Zer du egiatik...?

Zer du egiatik nire haserreak
Arkimedesen zirkuluekin?
Ekidistantzien neurri izan ohi dira.

Begira gauza txikiari,
normalean egia esan ohi du.
Inork entzun nahi ez duen
istorio eder hau.

Zer du egiaz, transzendentziaz nire
iritziak?

Zer du egiaz, fartsaz nire istorioak?

Egia ez da inoiz hain erraz

ikusten ez eta ulertzen
baina aurkitu daiteke bazterretan.

Zer du egiaz, trajikomediaz nire
iritziak?

Txalorik gabe, onartu ez nuen soinu
guztia

Begira bazterretan.

Begira areto hutsean.

Zer du egiaz, fantastikoaz nire iritziak?

Pentsatu gabe onartu ez nuen
disidentzian.

Begira bere oinetan

uzten duen arrastoan:

egia esan ohi du.

Zer du egiatik nire antzezpenak?

Zer du egiatik nire haserreak?

Zer du egiatik txaloak isildu direnean?

Zer du egiatik dena amaitu denean?

Poliorkêtès

Ez ginen bat eta ez ginen bi ere

bide berri hau hasi arte.

Bizirik dauden bitartean

“hemen gaude” esan zuten.

Ez diogu beldurrik beldurrari.

Ez genuen inor atzean utzi.

Kantu honekin hasiko gara

izango gara, izan bedi.

Ez ginen bat baina ez gara bi ere

ez genuen inoiz beste inoren
liderra edo eredu izanda
nahi edo eta agindurik bete.

Ez gara asko, ez gara bi ere
ez eta heroiak ere.

Mezu hau indarrez zabaltzeko
erabakia hartu genuen.

Ez ginen bat eta ez ginen bi ere
etxe zahar hau utzi arte.

Bizirik gauden bitartean

“hemen gaude” esan genuen.

Nekagarriegia da gorrotatzea (eta heroien kontrako saio holistiko bat doan)

Bi gai zurekin aztertzeko.

Ni zai zulotik irtetzeko.

Gora ala behera begira

inor itxaron aurretik korrika atera da

Arnas hartzeko.

Ez zinen ni heltzeko gai izan.

Barkatuta zaude.

Zoaz lasai.

Bakean gaude.

Bihar amaituko da dena

eta gaur merezi izan du penak.

Gora eta behera begira

begiak ixterako desagertu zara.

Arnas hartzeko.

Ez nintzen eusteko gai izan.
Barkatuak gaude .
Zoaz lasai.
Hala ere,
iheslari bat, erru bat onartzeko eta diot
"heroi ohi bat naiz".

Barka nazazu.
Ez nintzen ausarta inoiz izan.
Egina dago, jakina da.
Hala ere,
laztana, esan genuen
heroiak gorroto genituen.
Heroiak.

Dantzan zaude olatuen artean

Badira ur hotzetik ateratzen ziren
izenak.

Min ematen didan lurralde honetan
egarri al nintzen ala
haragi goseak irentsi gintuen?

Zertan zabilta leku honetan?
Ez al zenuen ikusten?
Dantzan olatuen artean ikusi zuen.

Badira lur gogorretik ateratzen
diren izenak.

Hondartuta gaude itsasarte honetan
kontinente hauek gauaz
urruntzen doazen bitartean.

Nola esan zure izena?
Poza da zu ezagutzea.
Zertan zabilta leku honetan?
Dantzan zaude olatuen artean.

Zein da zure amaren izena?
Ez al duzu gogoratzen?
"etxera bueltatuko zara"
esan zuen olatuen artean.

Minutu bat samurtasun hari bati heltzeko

Minutu bat.
Samurtasunaren
hari bati eutsi zion
eta ohartu zen
begirada leun eta irribarre keinu bat
zuela zuek begiratzean.

Libre izan arte.
Lagun onak ginen.
Hemen duzu nire eskua
haria hautsi gabe.

Nahiago dut hari txiki honi
eutsi samurtasunaren
aitzakiarekin.
Hemen egon
ez bazina bezala egin nire eskuak
askatzean.

Oreka galdu eta erortzen naiz.

Libre izan arte.

Lagun minak ginen.
Zuekin negoenean
epaiketik gabe.
Libre izan ginen.
Utz nazazue
zulo eder hontara
bakarrik erortzen.

Dantzan zaude ez tandem artean

Hasi,
hazi
kristalekin,
segi eta hobera egin.

Gaurkoz armak guban bizi dira.
Dantzan daude ez tandem artean.
Isildu ziren azken gauean.

Jauzi,
arnas
lagunekin.
Armak,
borroka egin.

Gaurkoz armak guban bizi dira.
Dantzan gaude ez tandem artean.
Isildu ziren azken gauean.

Gaurkoz armak behingoz isildu dira.
Dantzan geunden ez tandem artean.
Gaurkoz hiltzaileak gu gara.
Dantzan geunden ez tandem artean.

Bihar biktimen funeralean

dantzan geunden ez tandem artean
poza eta dantza izango dira.

Gaurkoz armak
gaurkoz hiltzaileak gu gara.
Dantzan geunden ez tandem artean.
Bihar biktimen funeralean
dantzan geunden ez tandem artean
poza eta dantza izango dira.
Isildu ginen azken gauean.

Hemen egotea gustatzen zait

Euria leiho joka dago baina ez dut
ireki.

Galduak etxe bat behar du.
Hemen ez du zer eginik,
zer aurkitu, nor aurkitu.
Goizeko seietan dena pizten da.
Zarata egin gabe pizten dijoa.

Eta gaueko zortzietan habitante
guztiak
itzaltzen dira.

Orduak gauean gaixotasuna dira.
Eta batzuetan zure presentzia.
Fantasma batekin hitz egiten dut.
Bai, faltan bota zaitut, baina ez orain.

Bai, korronteak daude,
bai, hormen pitzaduretan eta
sabaiko ohol zaharretan
irristatzen dira.
Nola dira, zer dira?
Han egotea gustatzen zait.

Korronteak ditut, bai, hormen zulo bat
naiz.

Hemen egotea gustatzen zait.

**Zaindu ezazu etxea lo nagoen
bitartean**

Goizez pizten da
gutxinaka etxea.
Ondo nago baina
geratu naiz ohean.

Etxea zaindu ezazu
lo nagoen artean.
Gela bero zegoen
zeunden bitartean.

Gaua iristean
gelan zerbait pizten da;
zure irudia
aurrean agertzen zait.

Lo egiten utz nazazu,
itzali argiak,
bihar bueltatu zaitetz,
zain egongo naiz.

Bihar egun berri bat
izan zen,
ondo egongo naiz.
Ez al zen
hitz egin genuena.

Eta dena itzaltzen dijoa.

Etxean zain nazazu
lo nagoen artean.

Bihar egun berri bat
izan zen,
ondo egongo naiz,
etxe honetako “habitante” huts bat
naiz.

Kerobia Eneko Requetibate, Lur Larraza, Txus Aranburu, Alberto Isaba eta Xabi Bandini gara.

Konposaketa, letrak eta ekoizpena:
Xabi Bandini

Istoria: Xabi Bandini

Kolaborazio eta laguntzak;

Gorka Armendariz (Leihotikan):
ahotsak “Dantzan zaude ez-tanden artean” abestian

Julen Suarez eta Andoni Arriola: haize sekzioa, tronpeta eta tronboia, “Nekagarriegia da gorrotatzea (eta heroien kontrako saio holistiko bat doan)” abestian

Igor Telletxea: tuba “Zer du egiatik...?” eta “Urtu arte” abestietan

Txemi Baobabs: kitarra elektrikoa “Hauts azpian hekatonbe bat” eta “Ez du minik emango” abestietan

Mikel Zorrilla: ahotsen ekoizpenean

Erabilitako instrumentuak; bateria, baxua, kontrabaxua, mandolina, kitarra akustikoa, elektrikoa eta klasikoa, sintetizadoreak, *hammonda*, pianoa, akordeoia, platiloak, triangeluak, klabeak, marakak, *shaker*ak, kastainuelak, tanborra, kortinila, karraka, tronpeta, tronboia, tuba, txaloak eta ahotsa.

Eskerrik asko materiala utzi diguzue; Gari, Iñaki Uoho, Txus Maraví eta Urko.

Ilustrazioak eta diseinua: Maite Gurrutxaga

Lan luze hau Lorentzo Records-en grabatua eta masterizatua izan da, Aitor Ariñoren eskutik.

Eskerrik asko gurean egoteagatik: Marielen, Antso, Cristina Cañizares, Julen eta Haritz Bidean, Zalao, Txetxo, Adri Belzu, Iker Alzaga, Jon Matute eta zuri.

Poliorkêtês. Etxe setiatua .

Kerobia, Y las ardillas mágicas, 2024

LG NA 1756-2024